

Toti Martínez de Lezea



Esne eta eztizko
lurra

n a r r a t i b a •

e r e i n

ESNE ETA EZTIZKO LURRA

Narratiba, 100

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Jatorrizko izenburua:

Tierra de leche y miel

Azalaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Koro Navarro

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-169-1

L. G.: SS-2084/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

Toti Martínez de Lezea

ESNE ETA EZTIZKO LURRA

Itzulpena:
Koro Navaro



Nire bihotzeko Edurne eta Tarekentzat

*José Luis Corral irakasle,
idazle eta adiskideari esker onez*



Paris

Antañana

Tafalla

Marsella

Me



Mediterranean

- Beirut
- Damasko
- Donibane Akuekoa
- Jaffa
- Jerusalem
- Gaza

©izonak mingaina ezpainetatik pasatu zuen; ez zeukan listurik ahoan, eta, eginahalak egin arren, begiak zabaldu ere ezin zituen egin. Adi jarri zen, baina isiltasuna oso-osea zen, eta hila zegoela pentsatu zuen, infernuaren ateetan zegoela. Izan ere, ezin zen bestela izan. Gerrako irudiak zebilzkion bere gogo sorgortuan, odolezko irudiak, eta, haiekin nahastuta, baita beste irudi batzuk atseginagoak ere, erreka ur gardenek bustitzen zituzten soro eta mendi-muinoenak. Betiko surtara kondenaturakoen intziriak aditzen zituela iruditu zitzaion, uluak areago; haize mehe batek laztantzen ziola aurpegia nabaritu zuen gero, eta zama astun bat zuela bularrean, eta, etsita, bere patua ametitzeko prest, begiak ireki zituen. Beltza, moko-zorrotza, begiratu beregan iltzatua, heriotza bera zetorkion bila. Ezin izan zion eutsi eztarrira etorri zitzaion garrasi bati, eta zartako bat jo zion. Zeharo harrituta, hego zabalak irekitzen ikusi zuen, haizean gora egiten, gero, segidan, ostera ere beraren kontra etortzeko. Hankak sentitzen ez bazituen ere, bere buruaren gainean jiratu zen, eta hantxe joan zen espektroa lurraren kontra. Ez zirudien, ordea, bere harrapakina uzteko asmorik zuenik, eta moko lepoan sartu zion.

–Kaka zaharra! –oihu egin zuen gizonak.

Iritziz aldatuta, jadanik ez zegoen patuari amore emateko. Heriotzaren kontra altxatu zen, heldu zion, eraso zion ukabilkadaka, eta, azkenik, lepoa bihurritzea lortu zuen. Eta orduantxe konturatu zen putre bat akabatu zuela.

Antoñana

✧ 1238ko udaberria ✧

Tibalten deia erresumako bazter guztietara heldu zen. Lur Santua sinesgabeen eskuetatik libratzen laguntzeko eskatzen zien Tibaltek, bere izeneko aurreneko erregeak, bere zaldunei, kapareei, nobleei eta basailuei. Baziren bost urte Champagneko eta Brieko kondea, Antso VII.a zenaren iloba, Nafarroako erregea ere bazela. Tronuari muzinik egiten ez bazion ere, ia-ia uste ez zuela heldu zitzaion erregetza. Argi zegoen, bestalde, Tibaltek nahiago zituela bere konderrria eta Frantziako iparraldeko bere gortea, zeinak ez baitzuen zerikusirik batere Nafarroako erresuma egiaz ederrarekin; baina basatiegia zen, aukeran, Tibalten iritziz. Nekez onartzen zuen bere ama maitea lur haietan jaioa izatea ere. Ez zuen bere mendekoen hizkuntza ulertzen, haien janariak ez zitzaizkion gustatzen, hain zakarrak, eta are gutxiago haien ardo lakarrak, kondearen sotoetan egiten ziren ardo gozoen hain bestelakoak. Hala eta guztiz ere, zenbait

bertute aitortzen zizkien hango herritarrei: langile amorratuak ziren, itzulungururik gabe esaten zituzten esan beharreko guztiak, ez ziren batere milikeria-zaleak, eta, gainera, baze-kiten abesten. Erregeak halako ospe bat zuen Frantziako Erresumako lehen trobadore gisa, eta asko estimatzen zuen musika ona. Bestalde, errege-titulua maila altuagokoa zen konde-titulua baino, eta Luis bere senidearekin zuzenean hitz egiteko eskubidea ematen zion. Egia zen, Champagneko konde gisa, Tibalt haren mendekoa zela; baina ez Nafarroako errege gisa, ama-erregina, sorgin zahar hura, amorratzen jar-tzen bazuen ere. Meza franko, errezoa franko, hori bai; baina atsoak sinetsi egin zien gezurra eta zikina besterik esaten ez zutenei: Tibalt berarekin enamoratua zegoela, eta senarra pozoitu zuela erreginaren faboreak eskuratzeko. Bera baino hamahiru urte zaharragoa zen emakume batekin enamoratua Tibalt, bere lorategietako edozein arrosa aukera zezakeen gi-zona? Saint-Déniseko basilikako hiletara joatea debekatu zion atsoak! Berari, zenduaren aldamenean behin eta berriz borrokatu zenari! Berari, atsoaren adina errege-odol zuenari, gehiago ez bazen! Egia zen Luis gaztearen koroatze-ospaki-zunera gonbidatu zuela, baina jende xeheak irain egin zion, hiltzaile deitu zioten, eta nahiago izan zuen erretiratu. Alabaina, azken-azkenean amore eman zuen, eta, urteetako ha-serrearen ondoren, Tibaltek burua makurtu zuen, egiaz esti-matzen baitzuen lehengusu hura, zeinarekin elkartzen baitzuten, ehizaz gainera, musikarekiko maitasunak eta Pa-lestinara bidaiatzeko ametsak.

Heldu zenean Tibalt bere erresuma berrira, seneskal izen-datatu zuen bere adiskide Ponç Douymekoa, eta kontseilari

frantsesez inguratu zen; gobernuko postuetan ipini zituen, eta traizioa egin zien nafarren foruei. Kapareak eta oinetxe-buruak erregearen kontra altxatu ziren; eta zer bururatuko hari, eta gurutzadetara joateko botoa egitea. Gregorio IX.ak, orduan, junta eta anaidi nafarrak desegiteko agindu zuen, eskumikuaren mehatxupean; eta Tibalt ezin zen Jerusalem aldera abiatu nobleen altxamenduek zirauten bitartean. Baina basailu matxinakorrak baretu zituelarik, bere lurralde frantsesen aldera atera zen erregea, laurehun zaldun oinetxe-buru eta ehunka kapare lagun zituela, nafarrak eta inguruko lurretakoak, denak ere haren deiari segika, txundimena eraginez igarotzen ziren leku guztietan. Espedizio hartan zihoan Ianitz Ruiz Antoñanako.

Egun batzuk lehenago, emakume alargun batengana joana zen Ianitz Laminoriako ibarrera, Antoñanatik gertu, eta kobrezko lau txanponen truke larrua jo nahi izan zuen harekin, zeinak sei bihurtu baitziren emakumeak hamabi eskatu ondoren. Alargunak, heldua baina aski ederra, *hetaira* gisa biribiltzen zuen bere ekonomia makala; bidean zebilen bezero batek erakutsi zion hitza, eta atsoak bertatik bereganatu zuen, apainagoa iruditzen baitzitzaion *puta* hutsa baino, nahiz eta alargunak zerikusirik batere izan ez antzinako Greziako kortesaneekin, ez grazian ez musika-jakintzan, panderoa jotzen bazekiela kenduta. Berean jo eta ke ari zirela, hara non agertu zaien Santa Piako komentuko abade sekularra, zeina aldi berean ibarreko jauna baitzen, eta Adam eta Eba fruitu debekatuaren kontuaren aurretik zeuden bezalaxe topatu zituen, hau da, larru gorritan. Abadeak sekulakoak bota zizkien, eta agindu zien bere zerbitzariei atxilotzeko biak eta ixteko

leihorik gabeko espetxe ilun, hori bai, banatan. Hurrengo igandean, mezaren ondoren eta Laminoriako eliztar guztien aurrean, lohikeriazko bekatu ikaragarriatik juzgatu zituen abadeak bi errudunak. Emakumea komentuko ukuiluetan bizitzera kondenatu zuen eta bertako lurrak garbitzera abadearen iritzian delitua garbitzeko behar zen denboraz, irribarre ez gutxi eraginez bere mendekoen artean. Izan ere, ondo asko zekiten denek alargunaren ohiko bezeroa zela don Nuño, nahiz eta elizgizonak behin eta berriz esan emakumea doktrinatzera joaten zela, eta bide zuzenetik gidatzera; baina zigor hura trikimailu bat besterik ez zen, emakumea eskura edukitzeko eta beste gizonekin ez partekatzeke. Ianitzekin, ordea, ez zen hain eskuzabala izan.

Txunditurik entzun zuen Ianitzek abadea epaia ematen. Banan-banan aipatu ondoren Infernura joanda gero haren arima bekatariak eternitate osoan zehar pairatuko zituen tormentu ikaragarriak, ahotsa jaso zuen abadeak, bertaratutako guztiek, elizgizon nahiz auzotar, ongi jaso zitzaten bere hitz guztiak.

–Ikaragarriko bekatua egin duk bosgarren Aginduaren kontra, eta nire mendeko baten ohorea lohitu duk gainera. Ni Laminoriako ibarreko jauna naizenez gero, hamar zigorkada hartzera kondenatzen haut; baina Jaungoiko gure Jaiuaren ordezkaria ere banaiz, eta, hortaz, eskumikatu egiten haut betiko. Alabaina, kristau karitateak eta maitasunak hitzarmen bat proposatzera behartzen naitek. Ez duk ez zigor bat ez bestea pairatuko heure arimagatik zin egiten baduk erromes joango haizela, eta itzuleran gure Santa Pia agurgariaren erlikia bat ekartzen baduk komentuko honetara.

Ianitzek zin egin zuen segituan, bere arimagatik eta edo-zerengatik, handik lehenbailehen ihes egin nahi zuen-eta. Malko batzuk ere isuri zituen, eta baita bularra ukabilaz jo ere, damu-seinale moduan. Alabaina, ezarritako zigorra betetzeko asmorik ez zuen batere. Abadeak bazituen urte batzuk, eta meza esaten eta bere mendekoak aitortzen bazituen ere, lur honetako plazerez ere bazekien ederki gozaten, janari gozoaz eta edari gozoagoaz, haragi-kontuak baztertu gabe, eta hura guztia hasia zitzaion bere aztarrena uzten, begi-azpietako zulo beltzetan ondo sumatzen zitzaion bezala. Bestalde, Ianitzek arrastorik ere ez zeukan zein izan ote zen Santa Pia hura, ez non aurki zitekeen haren erlikiaren bat; hala ba, denbora-puska batez desagertuko zen, eta elizgizona hildako herratua izatean, edo hildakoa besterik gabe, orduan itzuliko zen. Euria lehorte-garaian nola, halaxe heldu zitzaion Ianitzi Tibalten deia. Alfontso VIII.a zenak Arabako konderrria ia osorik erantsi bazion ere bere koroari, Antoñana eta inguru hartako beste herriak ez zeuden inoren lurretan, nolabait ere esateagatik, eta Ianitz nafarragoa sentitzen zen gaztelaua baino, besteak beste ama Deierrikoa zuelako; hala, bere leinuko buru gisa, eskubide guztia zeukan erregeari Lur Santua askatzera laguntzeko.

Don Nuñori ideia bikaina iruditu zitzaion hura; hala, bekatu guztiak garbituko zizkion gurutzada hartan abiatzeko aholkatu zion, eta egindako agindua ere gogorarazi zion, hots, komentua eskainia zegoen santaren erlikia batekin itzuliko zela; baina marabedi bakarra ere ez zion eman. Izerdi galantak bota behar izan zituen Ianitzek halako gertaera handiarentzako hornigai egokiak erosteko eta bidaiaria ordaintzeko.

Familia-etxea erortzeko zorian zegoen, hain zen zaharra; eta Ianitzek harro-harro esaten bazuen ere Antso III.a Gartzetz Nagusi oroitzen agurgarrikoaren beraren oinordekoa zela, auzokoek behin eta berriz gogorarazten zioten ezetz, eta, oso bestela, Obeko Fortunionetzen biloba zela: berrogei urte lehenago, Azkarra deituriko jaun Antso zenari afrikar lurraldeetan barna bere abenturan lagundu zion ezkutaria izan zen Obeko hura. Erregea kanpoan zelarik, Nafarroak Arabako eta Gipuzkoako lurrak galdu zituen, eta, gainera, Ianitzen aitona bidean geratu zen, hau da, ez zen sekula bueltatu, eta emaztea eta hiru seme-alaba utzi zituen Antoñanan mantenerik gabe. Mingain gaiztoek ziotenez, Obeko hura Ouarzazate izeneko toki batean geratu omen zen –izenak nafarra ematen zuen, baina mairua zen–, han, Afrikan. Eta ez hori bakarrik, fede kristaua galdu zuela ere esaten zen, turbantea jantzi zuela eta sarrazena batekin ohaidetu zela. Hala bazen edo ez bazen, haren berririk ez zen gehiago izan, eta emazteak bakarrik atera behar izan zituen aurrera bere seme-alabak, eta, are okerrago, auzokoek, senarraz akordatzan zirenean, esaten zizkieten hitz ironikoak aguantatu behar izaten zituen. Ianitzen amona ere gogoratzen zen gizonaz. Hil zen eguna arte madarikatu zuen, eta hil zen eguna arte errepikatu zion bere mutila zuen biloba bakarrari esateko bere partetik, baldin aitona topatzen bazuen sekula, joateko zakurraren ipurdira. Prest zegoen Ianitz bere leinuari izen ona itzultzeko, nola lortuko zuen oso ondo ez bazekien ere. Gurutzadarako deiak esku-eskura jarri zion aukera. Palestinara lagunduko zion erregeari, borrokatuko zen eta bidean gurutzatzen zitzaizkion fedegabeak akabatuko zituen, denak, baita bere aitona

nazkagarria ere, eta aberastasunez gainezka bueltatuko zen, bere etxe pobretua berritu eta emaztea bilatuko zuen, baina Nova Victorian edo Lizarran. Aitonaren lepotik pairatutako burla guztien ondoren, Antoñanako familia batek ere ez zuen merezi Ianitzek izateko asmoa zuen gurutzadako heroiarekin senidetzeko ohorerik.

Ianitz, *Urdaigutxi* izenaz ezagunagoa zen Eguzki Barren kaleko mailegu-emaile juduarekin hitz egitera joan zen, beharrezko diruak mailegatzeko asmoarekin, baina ez zuen arrakastarik izan, urrezko kate bat izan baitzen berme moduan eman ahal izan zuen gauza bakarra, eta letoizkoa zela ikusi zen, geruza urre-kolore batez estalia. Herriko mailegu-emaile kristauarengandik ere ez zuen laguntzarik eskuratu, azaldu zionez, debekatua omen zeukan beste kristauei dirua mailegatzea, nahiz eta behin ere ez zuen galtzen huraxe bera egiteko aukera negoziok itxura ona zuenean; baina ez zen Ianitzen kasua. Lizarran saio bat egitea erabaki zuen, eta emaitza berbera izan zen; baina azkenean suerte ona izan zuen, Mohamed Otxarra Tuterako mairua etorri zitzaionlarik, bizitzeko toki baten bila zebilela bere familiarekin. Egaren hiriko ostatu batean topo egin zuten Ianitzek eta biek. Ianitzek ez zuen ezagutzen Mahomaren erlijioaren jarraitzailearik, bazezien arren bazirela inguru hartan abeltzaintzan aritzen ziren familia musulman batzuk, eta deigarria gertatu zitzaion gizon hark bere hizkuntza berean hitz egitea. Are handiagoa izan zen Ianitzen sorpresa musulmanak jakinarazi zionean nafar peto-petoa zela; betidanik nafarra, halaxe esan zion. Beste asko bezala, haren arbasoak Islamaren federa bihurtu ziren inbasioen garaian, eta, azken batean, zer inporta zion erlijio batekoa edo

bestekoa izateak? Abeltzaina zela jakinik, gizon hari bere lur-
rrak errentan eskaintzea bururatu zitzaion Ianitzi, hori bai,
hornigai militarrek eta Lur Santura heltzeko bitartekoak es-
kuratzeko behar zituen diruen truke. Lurrei begiratu bat
egin ondoren, tuterarrak tratua onartu zuen, lur onak bai-
tziren haiek ganadua hazteko; baina bere baldintzak jarri zi-
tuen. Esandako kopuruaren truke, bost urteko erosketa-
kontratu bat sinatuko zuten biek notario baten aurrean,
saltzaileak lurrak berriz erosteko eskubidearekin. Baldin eta,
epea agortzean, Ianitzek ez bazeuzkan esandako kopurua
gehi interesak eskura, edo ez bazen garaiz itzultzen, eroslea-
ren jabetza bihurtuko ziren betiko lurrak eta etxea. Tratu zi-
nez zurruna zen, baina Ianitzek ez zuen aukera handirik. Ba-
zekien, han geratzen bazen, azkenean lur haiek saldu egingo
zituela, bizitzeko bitartekorik ez baitzitzaion geratzen kasik,
eta ondo zekien bera ez zela abeltzaintzarako jaioa. Baina ba-
zuen bere grazia: Mahomaren jarraitzaile batek ematea bi-
tartekoak, zertarako eta bere kideen kontra borrokatzera
joateko, nahiz eta berebat izan egia gauza bat zirela sinesteak
eta beste bat, arras diferentea, sehaska. Gizona buru-horia eta
begi-argia zen, eta, kontatzen zutenez, Palestinako fedegabeek
larruazal iluna zuten, eta ez zuten inondik ere Nafarroako hiz-
kuntzetan egiten.

Behar-beharrezkoak zituen jantziak erosi ondoren –sare-
begizko kota eta larruzko botak barne–, atzean eta aurrean fa-
miliaren ezkutua bordatua ageri zuen soingaineko kolore-go-
rri batez, esku bateko ezpata zorrodun batez eta kasketa
distiratsu batez gainera, Ianitzek diruak sobran zeuzkan orain-
dik ere zaldi gazte bat erosteko, balio zuenaren erdia ordaindu

baitzuen harengatik, zaharra utzi baitzuen haren lekuan. Itsasontziko bidaiak eta beste gastuak ordaintzeko gorde beharra zeukan gainerakoa, baina, laster Jesukristoren soldadua izango zelarik, ondo merezi zuen gozamen lurtarragoren bat. Noiz abiatuko zain, hartu zuen tokia El Recón kaleko ostatu batean, arkume errea jan zuen bapo egin arte, eta txanpon batzuen truke ostatuko bezeroak atsegintzen zituen neskame batekin oheratu zen. Egun batzuk pasatuta, Tibalten mezulari bat agertu zen hirian inguru haietako boluntarioak biltzeko aginduarekin, Tafallara eramateko gero denak erregearekin elkartzera. Antoñanako jaunak, halaxe aurkeztu baitzen Ianitz, bere zaldiaren gainean, taldearen buruzagitzan joateko ohore handia izan zuen hiritik ateratzeko unean. Burua tente zuela gurutzatu zuen hiria, herritarren harrimenerako, kondea baltiz bezala jantzita eta beste jaunen ondoan ikusita Obekoren biloba. Aurreneko aldia zen Ianitzek boterearen gozoa dastatzen zuena, abarkadunen gaintik egoteko sentipen hura, denek aho zabalik erreparatzen ziotela, eta zin egin zuen bere artean ez zela sekula berriz izango ordu arte izan zen kapare miserablea, kale-zakur bat baino pobregoa.

Tibalt Hiriberritik zetorren, eta egun batzuk geroago heldu zen Tafallara. San Pedroko elizan errezatzerak besterik ez zen han gelditu, laguntza eske Lur Santuan bere eginkizuna onez amaitzeko, eta Leku Santuetako erlikia batekin itzuliko zela agintzeko; agurtu zituen gero segizioari elkartu berriak ziren zaldunak, eta denek elkarrekin Iruñea aldera jarraitu zuten, eta handik Baionara. Champagnerainoko bidea sorpresa-iturri etengabea izan zen; Ianitz Ruiz Antoñanako behin ere atera gabea zen bere ingurutik, eta ikusten zuen

guztia gertatzen zitzaion berria eta exotikoa. Ez zuen erregearen ondoan joateko aukerarik izan, baina ez zitzaion inporta; gizon batek inoiz imajina zezakeen abenturarik handienez parte hartzeko gogoz zeuden laurehun zaldunetako bat zen. Aitoren seme batzuk kenduta, gehienak beren oinetxeetako bigarren semeak ziren, ezer heredatzeko esperantza gutxirekin, eta soldadutza zuten bizitzako irtenbide bakarra. Jaun Antso erregearen osaba zenaren ejertzitoan borrokatutakoak ziren batzuen batzuk, eta ez zekiten beste ezer egiten; hala ba, Tibalten deiak isolamendutik aterarazi zituen.

Laster egin zen Ianitz Martino Periz Barbaringoaren laguna; izen bereko herrixkatik etorritakoa zen, Ianitzen adin bera zuen gutxi asko, eta baita patu bera ere; alegia, miseria gorrian zegoen. Eta berebat zegoen sinetsita, bidaiaria hartan arima eternitate osorako salbatzeaz gainera, ezin hobeto biziko zela Damaskoko sultana garaitu ondoren, edo Egiptokoa, berdin zen. Planak egin zituzten, kontentu ziren leku guztietan egiten zieten harrera onarekin, eta biziki miretsi zituzten erregea kondea zen eskualdeko mahasti zabalak; baina mirespen hura ikara larria bihurtu zen Champagneko eskualdera ailegatu eta denbora gutxira. Izan ere, Aita Santuak eskatu zion Tibalti, hamabi urte lehenago kataroen kontrako bortizkeria predikatzen zuten elizgizonez idatzi zituen bertso burlatu batzuk zirela-eta, gurutzadari ekin aurretik bekatuak garbitu nahi bazituen, juizio bat antolatzeko bere konderriko herejeen kontra, eta erretzeko suan ehun eta lau-rogeita hiru gizon-emakume.

–Hori izugarrikeria! Hori jendilajea! –esan zion Ianitzek lagunari belarrira, igual bera erreko zuten-eta aditzen baldin

bazuten—. Kontuz jardun beharko diagu, hauekin ez zegok txantxetan ibiltzerik...

—Bai, gizona —erantzun zuen Martinok, gonbitoka has-teko sasi bila.

Ahaztu zituzten giza haragi errearen kiratsa, ikuskari ikaragarrien aurreko batzuen nahigabea eta besteen poza, eta mutututa geratu ziren txundimenarekin Parisera ailegatu eta bertako kaleak ikusi zituztenean, jendez, dendez, tabernez, burdelez beteak, eta katedrala, eta jauregia, eta frantsesen erre-gearen, nobleen eta haren damen luxuzko jantziak. Beste mundu bat zen. Luis IX.ak berak egin zien harrera nafarrak frantses hiriburura heldu zirenean; biziki deitoratu zuen ezin laguntzea, eta erresumako auziek uzten zioten bezain pronto ontziratuko zela agindu zien, urrezko txanponez betetako kutxa bat eman zion lehengusuari eta zin eginarazi zion erlikia sakratu bat ekarriko ziola, bera abiatu ahal izan baino lehen itzultzen bazen. Konde-erregeak zin egin zuen bere arbaso-engatik, halaxe egingo zuela, eta jendetzaren txaloen artean, Parisitik atera zen bere gizonekin. Zaldun frantsesen talde handi bat ere elkartu zen haiekin, eta Lyon aldera abiatu ziren denak, bai baitziren han beste noble frantses batzuk Leku Santu fedegabeen eskuetatik libratzeko eta, bide batez, aberasteko gogoz zeudenak. Gero Marseilla aldera joan ziren, han baitzituzten zain Jerusalemeko Erresumara eramango zituzten itsasontziak.

—Mila deabru! Zer arrano da hori? —oihu egin zuen Ianitzek.

Hogei itsasontzi zeuden olatu txikien gainean kulunka, neurri guztietakoak, elkarren ondo-ondoan jarrita, eta haien

kroskoek soinu hutsa eta errepikakorra ateratzen zuten elkarren kontra txoke egitean.

–Lur Santura eramango gaituzten barkuak –erantzun zion bera baino zaharragoa zen gizon batek. Salazarko ibarrean jaioa zen, eta haren adiskidea ere egin zen Ianitz.

–Zer esan nahi duk, horra igo behar dugula?

–Nola joango gara bestela sortaldera?

–Zer sortalde?

–Palestinara, nora bestela?

Ernaut Igarikoak irribarre maltzur bat egin zion, eta Ianitzek ez zion beste galderarik egin, ez baitzuen bere ezjakintasuna erakutsi nahi; baina ezin zituen parte txarrekoa irudititu zitzaion dantza batean mugitzen ziren intxaur-azal haietatik begiak apartatu. Berari handienez joatea egokitzea espero zuen, masta nagusian Tibalten bandera zeraman hartan, erdia gorria Nafarroagatik eta beste erdia urdina Champagnetatik; hori behintzat bai. Erregea ontzi hartan baldin bazihoan, huraxe izango zen hoberena, seguru. Ianitzi ez zitzaion errege-galera egokitu ordea; noble frantsesez bete zen. Dezente txikiagoa zen galeoi batean aurkitu zuten lekua hiru gizonen, eta hantxe pilatu ziren ehun gurutzatutik gora, baita haien zaldiak ere. Gutxienez tokitxo bat egin zuten brankako gazteluaren ondoan, eta, hala, bizkarra egurraren kontra bermatuta zutela joan ziren, eta ez gizajendez alde guztietatik inguratuta. Eta ordu onean.

Bidaia hasi orduko, sekulako indarrak hasi zen haizea joka, eta hasi ziren urak astinduka, halako eran non, itsasontzia gora eta behera zebilelarik, ez baitzen inor izan urdaileko edukia bota ez zuenik; aldi berean, zaldiak ezinegonez

mugitzen ziren, dena pixaz eta gorotzez betetzen zuten, eta marinelek, berriketa gutxirekin, ura baldeka botatzen zieten denei, gizon nahiz animalia. Behin ere ez zuen Ianitz Ruiz Antoñanakoak hainbeste juramentu eta hain segidan bota. Barkura igotzean ur-zahato batekin eman zieten bizkotxo-zatia irensteko gauza ere ez zen izan, eta mila bider madarikatu zuen, bistakoa zenez, gaizki amaituko zen abentura batean sartzera eraman zuen ideia zoroa. Bidaiaren zatirik handienean itsasoa bare egon bazen ere, ostera ere zakartu zen Bizantzioko kosten parean, eta itsasontziak haizeak mugiarazitako gari-aleak balira bezala sakabanatu ziren. Beren bidetik desbideratu ez zirenak hiru asteren buruan heldu ziren Akrera, zeina baitzen zaldun tenplarioen egoitza, eta itsasoaz bestaldeko portu nagusia; *Outre-mer*, frantsesek zioten bezala. Erregea, eta haiekin zihoazen nobleak eta hainbat dama kenduta, haiek denak galera handian baitzihoazen eta uneoro arreta ematen baitzitzaien, gainerako gurutzatuak goseak eta egarriak akabatzen heldu ziren, azpiko galtzak busti-busti eginak eta katu zahar usaina zeriela.

Sei hilabete baino gehiago baziren Ianitz Antoñanatik atera zela, harro-harro, eme-gose legokeen pauma bat irudi; libera batzuk galdua zen, eta uztarriak idi argalari nola, halaxe pisatzen zion Ianitzi sarezko kotak. Ostatu bat aurkitzea egin zuten Martino, Ernaut eta hirurek aurreneko gauza, Akko edo Akka-ko portu harresituan, zeina bost hamarraldi lehenago Akreko San Joan bezala kristautu baitzuten gurutzatuek. Tokia, berez, mundu oso bat zen, leku guztietatik heldutakoek osatua, eta kristauak, arabiarrek eta hebrearrak, enbaxadoreak, militarak, merkatariak, erromesak, abenturazaleak eta lapurrak,

denetik ikusten zen han. Merkatariak, genoatarrak eta veneziarrak gehienak, auzo hoberenetan zeuden, beren biltegi eta dendekin, baita ur-putzuekin ere. Erromesek, ehunka heltzen baitziren, haiantzako eraikitako ospitale eta babesleku ugarietako batean hartzen zuten egonlekua. Ordena militarrek iparraldeko alderdian zeukaten egoitza, nahiz eta Tenpluko zaldunen gotorlekua hiriko hegoaldean egon, itsasoaren parean. Domiku izeneko erronkariar baten ostatuan aurkitu zuten hiru lagunek egonlekua. Gaztetan heldua zen erronkariarra Palestinara, eta ilea urdintzen hasia zuen.

–Ohitu egiten duk bat –esan zien erronkariarrak, galdetu ziotenean heldu berriek zergatik ez zen etxera itzuli.

–Eta nolaz bururatu zitzaian hona etortzea? –galdetu zion Martinok.

–Nire arima salbatzeko, zuek bezala, nik uste –gero barez hasi zen–. Eta, bide batez, zorroa betetzeko, beste guztiek bezala, baina urteak pasatu, emakumea topatu nian, eta hementxe nagok.

–Izan al haiz Jerusalemen? –galdetu zion zaraitzuarrak.

Zaraitzuarra ez zen aberasteko xedearekin sartu abentura hartan, Iruñeko apezpikuak ezarritako penitentziaz baizik, bizilagun bat akabatu baitzuen, koinatua zuena gainera, soro mugakideei buruzko errietaldi batean. Hala, Igariko jaunak, zeina Zaraitzuko ibarreko jauntxo bat baitzen, dorre baten eta zenbait etxeren jabea, testamentua egin zuen, seme nagusiari eman zion bere jabetza, eta emaztea eta beste bost seme-alabak agurtu zituen, sinetsita arrunt ez zituela inoiz berriz ikusiko. Bidaia seguruago egiteko joan zen Tibalten espedizioan, baina batiere asmorik ez zuen beste gizonen kontra borrokatzeko, izan

mairuak edo izan kristauak. Palestinara heldutakoan, Jesus Jaunaren hilobira joan nahi zuen bere krimenarengatik barkamena eskatzera, eta ermitau-talderen batekin nahi zuen gero elkartu, aditu baitzuen kobazuloetan bizi zirela eta erromesei laguntzen aritzen zirela. Egiazkoa zen zaraitzuarraren damua, eta errezatzen egin zuen itsasbide osoa; guztiz harrituta begiratzen zioten bere bi bidaideek, haiek ez baitziren baxterezaleak.

–Ez –erantzun zuen ostatu-emaileak–. Horixe zuan nire asmoa, baina, gauza bat zela eta bestea zela, lurrotara ailegatu nintzenetik ez nauk Akretik mugitu, eta badira hiru hamar-kada kasik, gurutzatuek hiria konkistatu eta handik gutxira heldu bainintzen.

–Eta denbora horretan guztian ez duk gure Jaunaren hilobiaren aurrean belaunikatzera joateko desirarik izan, hain gertu egonik gainera?

Egiaz harritua zegoen Ernaut Igarikoa.

–Egia esatera, ez. Denbora askotxo zeramaat nik hemen, eta bazekiat inoiz lurrotan gauza zerutiarrrik izan bazen, aspaldi desagertu zela. Tenpluko merkatariak itzuli dituk, eta lasai-lasai zebiltzak Lur Santuan.

Eta, bere hiru apopiloak txundituta utziz, bi ordena militar nagusiak –Tenplukoak eta Ospitalekoak– aurrez aurre jarrazazi zituen borrokaz mintzatu zitzaizen Domiku; Damaskoko sultanaren aliatuak haiek, Egiptoko sultanarenak hauek. Berebat jakinarazi zien beren sorterrira itzultzeko suertea zuten erromesei kontatzen entzundakoa; nola Jesusen gorpua zeruetara igo aurretik ipini zuten esparru sakratua eztabaidaturria zen fraide kristau latinoen, ortodoxoen, armeniarren,

koptoen eta etiopiarren artean, eta nola gauza ziren santutegiaren barruan bertan ere borrokan hasteko; nola lapurren, iruzurgileen eta gaizkileen eskuetan erortzen ziren, erromesaldian joan ahal izateko, lastaira bera ere bahian eman zuten gizakume elizkoiek; nola osten eta engainatzen zituzten, amak mundu honetara ekarri zituen bezalaxe uzteraino, eta hori, den-dena kendu ondoren akabatzen ez bazituzten; nola inor ez zegoen salbu gerraren jaun haien artean, izan jauna musulmana edo izan kristaua, batere aztoratu gabe akabatzen baitzituzten gizonak, emakumeak eta umeak.

–Merkatariak dira hemen bentaja ateratzen duten bakarrak, edozein sinesbidetakoak, eta, ez duten fedearen aitzakiarekin, Palestinako lurak banatu dituzten europar jaunak.

–Gu guztion izenean du fedea Aita Santuak –esan zuen Igariko jaunak.

–Kezkatuagoa dago Gregorio IX.a Frederiko enperadorearekin eta Konstantinoplako Aitalehenarekin dituen liskarrekin, kristau fededunak babestearekin baino.

–Jaungoikoaren lur honetako ordezkaria da Aita Santua!

–Komeni zaiolako esaten du hori –erantzun zuen lasai asko erronkariarrak–. Denboralditxo bat pasatu hemen, eta konturatuko zarete ez naizela gezurretan ari.

Zaraitzuarrak ez zuen jarraitu nahi bere ustez ostatuemailearen biraoak ziren haiek entzuten, eta non kenduko ote zuten gainean zekarten kraka galdetu zion. Saladinen denboretan eraikitako bainu-etxe batean ziren hiru gizonak handik gutxira. Gurutzatuek ere garbitu beharra izaten zuten noizik eta behin, eta horrengatik ez zuten eraikin hura suntsitu.

Tokia harrigarri garbia zegoen, eta erromero- eta ez kai-usaina zerion. Tarteko adineko emakume batek hartu zituen, zapi zuri batzuk eta egurrezko zola zuten sandaliak eman zizkien, eta frantsesez adierazi zien erantzi egin behar zutela. Ia-ia atera ziren hirurak korrika handik, baina gelditu egin ziren aldameneko gelara zihoazen gizonak ikusi zituztenean: erantzita, larru gorritan zihoazen, zapi zuri bat zutela buruan turbante moduan, eta beste bat lepoan hartuta. Aldez aurretik pagatu zuten zerbitzua, eta ez zuten txanpon sorta eder bat galduko, ikusten zenez, han inork ez zuen lotsagatik. Azkenean, kendu zuten arropa, eta mutil batek jaso zuen bizkor; ipini zituzten turbanteak, eta ilaran, bata bestearen atzetik, areto beroan sartu ziren, lotsariak eskuko zapiekin estaliz. Atzera eragin zien lurrinak, ez baitzien ia ikusten uzten, baina pentsatzeko ere ez zuten astirik izan; gerripeko bat zeraman gizonkote izerditsu batek egurrezko banku batzuk seinatu zizkien, han eser zitezten. Handik gutxira, izerditan zeuden hiru gizonak eta goxo-goxo sentitzen hasiak; baina halako batean, lo hartzeko puntu-puntu zeudenean, lehengo morroi berak aurreko aretoa seinatu zien. Han bainulari batzuek eraso egin zieten eta burutik oinetaraino xabonatu zituzten, hiruren sorpresa-rako eta Ernauten aztoramendurako, haiek denak oso gauza lotsagarriak gertatzen baitzitzaizkion hari, duintasunari eusten saiatu zen arren, xaboa kentzeko, ur beroarekin baldekadaka bustitzen zituzten bitartean. Areto epelera pasatu ziren orduan, masajea hartzera, areto hotzera itzuli eta beste dutxa bat pairatu aurretik, orduko hartan ur izoztuarekin.

–Hauek ito egin nahi gaituzte edo zer arraio? –galdetu zuen Martinok.